



37 Miatze-jarduera: Gastroenteritisa

C INFORMAZIOA ESKURATZEA

3 Gure herrian ohikoa da gastroenteritisa, baita Senegalen ere. Baina gaixotasun horrek ondorio berak al ditu bi herrialdeetan? Lehenengo ikerketatik berreskuratutako datuak kontuan izanda, aztertu eta adierazi herrialde bakoitzak dituen baliabideak gastroenteritisari aurre egiteko. Osatu honako taula hau lortutako informazioarekin:

GASTROENTERITISA		
OSASUN ARAZOA	KONPONBIDERAKO BALIABIDEAK	
	EUSKAL HERRIA	SENEGAL

D DATUEN INTERPRETAZIOA ETA ONDORIOAK

Bigarren ikerketa honek argi erakutsi du gaixotasunei aurre egiteko baliabide desberdinak daudela Euskal Herrian eta Senegalen. Zein dira gastroenteritisari aurre egiteko bi herrialdeen artean dauden desberdintasun nabarmenenak?

2 Osatu testua:

Euskal Herrian eta Senegalen aukera berdinak gastroenteritisari aurre egiteko. Euskal Herrian, prebentzio-neurriak hartuz, gastroenteritisa daiteke; Senegalen, berriz, askotan ezin da eskuratu, ez dute, eta, baldintza horiek izanik, da prebentzio-neurriak hartzea.

Gaixotuz gero, Euskal Herrian eskura daitezke eta berehala sendatzen da gaixotasuna. Senegalen, ordea, baliabide daude; ondorioz, gaixotasuna konplikatu egiten da, eta jende asko hiltzen da gastroenteritisak jota.

Gastroenteritisaren inguruan ateratako ondorio hauetan oinarrituta, esan genezake baliabideek eragina pertsonen bizi-itxaropenean.



6.2 INGURUNEA

GIZARTE ETA NATURAREN ZIENTZIAK



NON JAIO, HALA BIZI

